

III AURREOLINPIADA MATEMATIKOA

2. DBH-ko III eta IV BURUKETAK

3. GORKAREN ASMAKIZUNA

Gorka asmakizunak asmatzeko duen gaitasunarengatik famatua da Argentinan. Bere azkeneko asmakizunean, zenbaki bat asmatzeko honako pista hauek eman ditu:

- a) Zenbakiak lau zifra ditu eta kapikua da.
- b) Zifren batura 16 da.
- c) Batekoak hamarrekoekin aldatuta eta ehunekoak

milakoekin aldatzen badira, zenbakia kapikua izaten jarraitzen du, eta zifren batura 16 izaten jarraitzen du ere, baina zenbaki berriaren eta neukanaren arteko kenketa egitean 5.346 ematen du.

4. EZTI GOXOA

Ezti goxoaren lantegi batean, erlauntz itxurako ontziak egitea erabaki dute. Oinarriaren perimetroa 24 cm-koa da eta altuera 16 cm-koa. Etiketa jartzeko, erronbo itxurako pegatinak erabili nahi dituzte, marrazkian agertzen den bezala.

- a) Zenbat neurtzen du pegatinaren aldeak?
- b) Kalkula ezazu zenbat kostatuko duen 1500 pegatina egiteak, hoiek egiteko beharrezkoa den paperaren metro kuadroak 2€ balio badu.



Kontutan hartuko diren atalak:

1. Ebazpenaren originaltasuna eta sinpletasuna.
2. Informazioaren erabilera eta ulerkortasuna.
3. Arrazonamendu argia.
4. Aurkezpena, ortografia akatsak eta garbitasuna.

PROBLEMA AURKEZTEKO EPEA: MARTXOAREN 25-a.